

bizi denak, bere tonu berberaz hitz egiten du, bere errukiaz jokatzeko du, bere alaitasuna transmititzen du. Barne-bizitza hori falta denean, mezuak sinesgarritasuna, freskotasuna eta sua galtzen ditu.



Galdera

1. Zer bitarteko zehatz (Hitza, Eukaristia, isiltasuna, akonpainamendu espiritual...) jartzen ditut Kristok ni eratu nazan?
2. Nolakoa da nire Kristoren lekuko izatea? Zer iragartzen dut nire bizitzarekin?



Bukaerako otoitza

Jesus jauna,
gaur zugana nator
desira sakon batekin: nire bizitza
zurearekin eraldatu dadila.

Zu, Aitaren esana eginez bizi izan zinena,
erakutsi iezadazu fidatzen.

Zuk, muturreraino maitatu zenuen horrek,
erakutsi iezadazu maitatzen.

Zuk, maitasunagatik gurutzea besarkatu zenuenak,
erakutsi iezadazu neure gurutzea itxaropenez besarkatzen.

Espiritu Santua,
eraldatze honen artisaua zaren horrek,
Kristoren irudia moldatu nigan.

Egun bakoitza aukera bat izan dadila.
Haren antz handiagoa izateko.

Eta bidea zailtzen denean,
gogora iezadazu ez nagoela bakarrik.

Kristo nigan bizi dela,
bere indarrak eusten nauela,
bere grazia aski dudala,

Amen.

GURE AITA

IKASLE MISIOLATZIAK

Hitzarekin
topatuz

2. fitxa, Jn 14, 19-26

KRISTOREKIN
ERATUAK



Donostiako
Gozaindegia
Obispado de
San Sebastián



Hasierako otoitza

Jaunaren hitza entzun ta gurea egiteko prestatuko gara isiltasun une bat eginez eta Espiritu Santuari dei eginez.

Espiritu Santua, zatoz!
Ireki gure bihotza
Jaunak Idatzietan eskaintzen digun Hitza
entzun dezagun.

Espiritu Santua, zatoz!
Emaguzu ulermena eta iraunkortasuna
Hitza ulertzeko
eta praktikara eramateko.



Sarrera

Sineste duna, Kristorekin Eratua izatea barrendik Jesusen erakoa izatera eraldatze prozesua da. Ez da soilik bera imitatzea, bere azaleko keinuak, baizik eta bera bezala, gorputz eta arimaz lana egitea, Aitarenganako maitasunaz eta obedientziaz.

Kristorekin eratua izatea, komunio bidea da berarekin bat izatera iristeko. Kristok gure bizitzan parte hartuz guregan bere graziaren bitartez, sakramentu, otoitza eta Ebanjelioa benetan guregan bizitza egin dela esatera iritsi ahal izateraino: “Eta honezkero ez naiz ni bizi, Kristo bizi da niregan.” (Ga 2,20) Eratua izate hau, kristauaren bokazioa da. Izate honek ahalbidetuko du benetako ikasle eta misio bizitza.



Jn 14, 19-26

Laster munduak ez nau gehiago ikusiko; zuek, ordea, ikusiko nauzue, nik bizia baitut eta zuek ere biziko baitzarete. Egun hartan ulertuko duzue ni Aitarekin bat eginda nagoela, zuek nirekin eta ni zuekin. Nire aginduak onartu eta betetzen dituenak, horrexek nau maite. Ni maite nauena, berriz, nire Aitak maite izango du, eta nik ere maite izango dut eta agertuko natzaio berari».

Honela esan zion Judasek –ez Iskariotek, besteak baizik–:

–Jauna, zer dela-eta agertuko zatzaizkigu guri eta ez munduari?

Jesusek erantzun zion:

–Maite nauenak onartuko du nire mezua; nire Aitak maite izango du,

eta Aita eta biok berarengana etorriko gara eta berarengan biziko. Maite ez nauenak, ordea, ez ditu onartzen nire hitzak. Eta adierazi dizuedan mezua ez dut neurea, bidali nauen Aitarena baizik.

«Zuekin naizen artean esan dizuet hau guztia. Baina Aitak Laguntzileak, Espiritu Santua, bidaliko dizue nire izenean, eta berak gogorarako dizue nik irakatsitako guztia eta ulertzen lagunduko.



Evangeli Gaudium

266. Egiatzko misiolariak, ikaslea izateari inoiz uzten ez dionak, bada-ki Jesus berarekin doala, berarekin hitz egiten duela, berarekin arnas hartzen, berarekin lan egiten. Misio-eginbeharraren erdian Jesus bizirik antzematen du bere ondoan. Batek misio-eskaintzaren muinean bertan aurkitzen ez badu, laster galtzen du gogo beroa eta iragartzen duenarekin seguru egoteari uzten dio, indarra eta adorea falta zaizkiolarik. Eta konbentzituta, adoretuta, darabilenarekin ziur, maiteminduta ez dagoen pertsonak ez du inor konbentzitzen.

267. Jesusekin bat eginik, Berak bilatzen duena bilatzen dugu, Berak maite duena maitatzen. Azken finean, Aitaren aintza bilatzen dugu; «eman digun do-hain zoragarria berarentzat gorespen-kantu bihur dadin» (Ef 1,6) bizi gara eta lan egiten dugu. Buru-belarri eta iraupe-gez geure burua eskaini nahi badugu, beste edozein motibazio baino sakonago joan behar dugu. Hori da bultzada erabatekoa, sakonena, handiena, beste guztiaren arrazoia eta zentzu betea.



Gogoeta

Kristok, ideiak erakustez gain, muturreraino maitatu gintuen (Jn 13,1). Bere maitasunak gudan itxura hartzen badu bakarrik barkatuko dugu Berak barkatzen duen bezala, zerbitzatuko dugu Berak egiten duen bezala, begiratuko dugu Berak begiratzen duen bezala. “Nik maitatu zaituztedan bezala, maitatu zuek ere elkar.” (Jn 13,34).

Ezin da Kristoren benetako berri eman Berarengan bizi ez bada. Ebanjelizatzea ez da doktrinak errepikatzea, bizi gaituena bizitzaz adieraztea baizik. Lekuko izatea ez da bakarrik zerbitzu kontatzea, baizik eta Kristorengan ikusia, maitatua, sinetsia izan daitekeen norbait izatea. Hori da eginkizun eta ugalkortasun guztiaren iturria. Kristorengan

